

Zalapartarik gabe burutako elkarlan luzearen emaitza

Olaso Dorrea Sorrerakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana aspaldikoa dela gogoratu zuten atzo, urrats berritzat har daitekeen hitzarmena sinatu aurretik, Jose Luis Elkorok eta Andres Urrutiak. Hain zuzen ere, Telesforo Monzon zendu eta berehala hasi zen, nahiz eta egiteko zehatzei 1993an heldu, Euskaltzaindiak Donibane Lohizunen Lacomberen Ondarearen lehen taxuketa egin zuenean.

Handik bizpahiru urtera ekarri zuten Bergarara Lacombe osatutako biblitoeka eta artxiboa, baina bidaiak ez ziren amaitu, luze gabe artxiboa Bilboko Euskaltzaindiko egoitzara eraman baitzuten, taxutu eta inbentariatzeko. Bergarara itzuli zen ondoren eta, Olaso Dorrea Sorrerakundearekin egindako akordioaren arabera, mikrofilmatu egin zuen Irargik.

Hurrengo joan-etorriko bidaia Olasoko artxiboak egin zuen, 1997an. Artxiboa oso baliotsutzat jo zuen Jose Antonio Arana Martijak Bilbon taxutu zuen alegia, lanak amaitutakoan Bergarara itzultzeko. Azkenik, 1998 urtean Euskaltzaindia Olaso Dorrea fundazioko kide izendatu ostean, Olaso eta Lacombe bibliotekei iritsi zitzairen txanda 2000.ean. Aurrenekoa Bergaran bertan inbentariatu zen, eta Lacomberena, katalogatua ez ezik, digitalizatua ere izan zen Azkue Bibliotekan.

Aspaldiko harreman horiek ahalbidetu dute, Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzetan, atzoko urrats garrantzitsua, Euskal Herriko ondarea gordetzeko, zaintzeko eta jendearen eskuetan jartzeko elkarlana posible dela frogatzen duena. Horrez gain, zalaparta eta espanturik gabeko lan isilaren emaitzak ozen eta pausoz pauso aldarrikatzen diren balentrienak baino eraginkorragoak izan daitezkeela ere frogatu du Olaso Dorrea Sorrerakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko aspaldiko elkarlanak. Horregatik ez zituen ahaztu Urrutia euskaltzainburuak eskerrak emateko orduan lan isil hori burutu duten Jose Antonio Arana Martina euskaltzaina, Euskaltzaindiko liburuzain ohia; Josune Olabarria Euskaltzaindiko langilea eta egungo liburuzain Pruden Gartzia.